

Ibai Gandiaga °

Gako-hitzak:  
 etxebizitza, okupazioa,  
 kontratu prekarioak,  
 Bilboko Okupazio Mugimendua

# Okupazioa eta kontratu prekarioak. Okupazioa legeztatzeke nagusi eta maizterren arteko akordio berriak.

*Leticiak erabaki zuten, aspaldi, etxebizitzaren armiarma-saretik banka egitea, hau da, ibes egin zion “ganorazko” beldutasuna beltzean pasa beharreko trantze txarrari: etxea erosteari, alegia. Bizitzeko lan egin, edo lan egin bizi abal izateko aukeren artean, Leticiak okupatzea hartu zuten aukera. Estereotipo guztien gainetik, nagusi eta maizterrentzat egokia zen akordioa bilatu zuten. Hori egiteko Inaki Carro eta Bilboko Okupazio Bulegoaren laguntza jaso zuten, arkitekto, legegile eta politikarien gainetik salto eginez.*

*Leti eta lagun duen Xabirekin bildu nai; elkarrekin bizi izan zituzten, Bilbon, lehenbiziko okupazio saiakerak. Letiren etxe “prekarioan” elkartu gara, Bilboko itsasadarraren usainak lorategi txukunaren gainetik salto egiten duela.*

## Nola hasi zineten Bilbon okupatzen?

Leti: Londresetik nentorren, ondo zer egin jakin gabe, eta Ekoetxeara galdetzeraz joan nintzen; okupatzearen inguruan zertxobait esan, eta bat-batean jende pilo bat bildu ginen.

## Ba al zegoen Bilbon okupazio asanbladarik?

XABIER: Bai, egon bazegoen, baina gaztetxeetan zentratutik zegoen.

L: Ia denok kanpotik gentozen, eta ez genuen Bilboko okupazioaren inguruko berririk. Okupatu nahi genuen, baina ez genekien oso ondo nola burutu gura hori. Aldi berean, Bilboko Okupazio Mugimendua sortzen ari zen, nolabait beraien burua Bilboko mugimendu “okupa” bezala izendatu zutenak, baina jende asko dago, sakabanaturik, etxebizitzaren okupazioa gauzatzeko, mugimendu horrekin zerikusirik izan gabe.

X: Okupatzeko asmoz geundenok Kulturaren biltzen hasi ginen (Bilbo Zaharreko Kultur Etxea Kultura Elkarte). Elkarri laguntzeko asmo handia zegoen, bakoitza oso egoera ezberdinetatik baikentozen: paperik gabeko etorkin batetik unibertsitateko irakasle batera, okupazioan eskarmenturik gabeko jendea, Barnatik okupazioaren inguruan ibilbide politiko luzeko pertsonak...

## Diskurtso politiko bat zegoela esango zenukete?

L: Diskurtso landuagoa zuen jendea zegoen, baita diskurtsorik gabekoa ere. Izendatzaile komuna etxe baten beharra zela esango nuke.

## Nola bilatzen da okupatzeko etxea?

L: Hor zegoen, bada, gako! Horretarako biltzen ginen.

X: Bide asko zeuden, baina garrantzitsuena pasieran ibiltzea da, eta begiratzea.

*Leticiak Bilboko Okupazio Bulegoak argitaratutako liburuxka bat luizatzen dit. Bertan, okupazio batek bete beharreko urratsak azaltzen dira, bai eta horien ondorioak ere. Etxearen hantaketa, etxearen egoera fisikoa aztertzea: bizilagunak, argindarra, teilatua, ura... Etxearen jabea zein den jakitea ere garrantzitsua da, abandonatuta dagoen ala ez. Azkenik, ondorio legalak aztertzen ditu, Kode Penalak ez baitu okupazioa delitutzat jotzen baina bai, ordea, usurpazioa. Hau da, ondasuna kaltetzen ez bada, ez dago deliturik.*

## Okupatzearen alderdi legalak ezagutzen zenituzten?

X: Printzipioz, ez dizu kondena larririk ekartzen. Alderdi legala bi zatitan banatzen da: delitua izatera ailegatzeko etxearen atea apurtzen harrapatu behar zaituzte, edo, behin poliziak irteteko eskatzen dizunean, ezezkoa eman. Epaiketa egon daiteke, baina salatu behar zaituzte, identifikatu... zaila da. Edonola ere, usurpazio-delitu bat egon daiteke, eta asko jota 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko zigorra da; aurrekaririk ezean, ordea, ez zinateke kartzelara joango.

## Haria ez galtze aldera, okupatu zenuten lehenbiziko tokia...?

L: Iturribide kalea izan zen lehena.

X: Zazpi Kaleetako okupen asanbladak Unamuno kaleko geltoki zaharra okupatu zuten. Poliziak hortik bidali zituen, beraz tentsio handiko momentuak ziren. Guk handik gutxira okupatu genuen.


L: Eraikin osoa zegoen hutsik; beharnada anbizio handikoak izan ginen, baina ikusi, guardiak egiten ibili eta sartu ginen.

X: Jabea oso aberatsa zen, eta deitu egin genion; funtsean, bere eraikina narriadura-egoeran zegoela jakinarazteko deitu genion, eta gure eskuetan zegoela hori konpontzea: garbituko genuela, pilotutako zakarra aterako genuela, atondu...

L: Egun batzuk pasa genituen, barruan, ezkatututa. Gelditzeko aukera izango genuen ala ez jakin nahi genuen, konponketa eta atondura lanak hasteko. Nagusiari deitzeko erabakia hartu genuen lan horiek egiten hasteko aukera izango genuen lehenbailehen jakiteko. Deitu eta hurrengo egunean, ordea, istiluen kontrako poliziaren hamabost furgoneta genituen etxe bearruan.

## Momentu hartatik, zenbat denbora igaro zen mereziko zuen zerbait topatu arte?

L: Gero Bilbo Zaharrera joan ginen, hain justu ere garai bateko etxeak botatzen zeuden momentuan; etxe batean sartu orduko, eraispen-lanen berri ematen ziguten. Etxearen hustea jakinarazteko, bearruan karteltxo bat jartzen ziguten: “Eraikin honen eraispen-lanak aurki hasiko dira, barneko bizilagunei eraikina atoa lagatzea eskatzen zaie”.



Irudia: Ibai Gandiaga

\*\*\*

*Leticia eta bere lagunak etxea Bilbo Handian butsik dauden (eta 2. etxebizitzaren artean ez dauden) 14.000 etxebizitzetarikoa bat besterik ez da, Eusko Jaurlaritzak 2009an ateratako txostenaren arabera. Hemen quid pro quo akordio bat proposatzen da, bi errealitate azaleratzen dituenak: eraikinak dituzten lagunak daude, eta eraikinak behar dituzten beste batzuk ere. Jabeen motibazio "espekulatuzaileak" zalantzan jar badaitezke ere (espekulazioa al da zure oinordekoei tokia uzteko pisu bat izatea, nabiz eta, bide batez, higiezinaren balioa urtero % 5 igotzea espero? Eta pisu bakarraren partez, bost pisu baldin badituzu? Non dago muga? Maizterren beharrak ezin dira zalantzan jarri, ez eta narriadura-egoeran dagoen toki bat etxebizitzara duin bihurtzeko asmoa ere.*

△  
▽  
△ Elkarrizketa: Okupazioa eta kontratu prekarioak. Okupazioa legeztatzeko nagusi eta maizterren arteko akordio berriak.

X: Kartel hori fotokopiatu eta auzotik itsatsi genuen, eraispenen eraginean ez zeuden bizilagunak nolabait sentsibilizatzeko, oso bortitza izan baitzen auzoak pairatu zuen hirigintza-aldaketa prozesua. Hutsik zeunden hainbat eraikinetan, armairutan eskegitako arropa eta egindako oheak ere topatu genituen!

P: Leticia, eskarmentu horiek guztiak eta gero, nola heltzen zara kontratu prekario bat lortzera?

L: Beno, denboraldi bat pasa nuen alokairuan, eta okupazioa bizitza-estilotzat hartzeko ideiarekin jarraitu nuen, nire bizitza 8 orduko lan baten morroi ez bihurtzeko. Bartzelonara joan nintzen, gero Menorcara, eta, bizipen ugari eta gero, Bilbora bueltatzea erabaki nuen. Bueltan, berriro ere zer egin ez nekiela egon nintzen, baina orduan okupatzeko asmoekin zeuden hainbat pertsona ezagutu nituen, eta beste ezagun batzuen bitartez etxe hau topatu genuen. Sartu eta gutxira nagusiak, beste andre bat, salaketa jarri zuen. Orduan berarekin zuzenean hitz egiteko erabakia hartu nuen.

#### Iturribide kalean egindako bera, alajaina.

L: Beste modu batean, berak salaketa jarri arte itxaron bainuen. Salaketa egon zen momentuan, berarekin jarri ginen harremanetan. Beti pentsatu izan dut okupazioa ondo dagoela, baina muga batzuetaraino, eta gizakiok hitz eginez elkar uler dezakegu. Kasu honetan bete-betean asmatu nuen.

#### Kontratu prekarioaren ideia, nola sortu zen?

L: Ideia Iñaki Carrorena izan zen, Okupazio Bulegoko partaide dena, eta Bilboko okupa askori laguntza paregabea eman diena. Bera intsumisioa izan zen, eta kartzelan Zuzenbidea ikasi zuen, gerora aferaz sozialekin erlacionaturiko kasu anitzetan lan egin du: oinarritzko errenta, okupazioa... Salaketa jaso genuenean Bulegoarekin jarri ginen harremanetan, eta zorte ikaragarria izan genuen, ze hain justu Bilboko epaitegiek bitartekaritza sail bat sortu berri zuten, akordioen bitartez ebatz zitezkeen arazoak konpontzeko, epaiketarik gabe. Suposatzen dut nagusia, bitartekaritza sailekoek gure kasua onartu zutela jakin zuenean, dezente lasaituko zela, seriotasun puntu bat ematen baitzion. Nagusiak jabego asko dituen pertsona da, eta jabego horiek, zenbaitetan arazoak ekartzen dizkiote. Gu heltzean irtenbide bat proposatu genion, eta bide batez epaiketari saihestea lortu... mesedea egin geniola esango nuke.

#### Zertan datza kontratu prekario bat?

L: Nagusiak espazioaren erabilerearen eskubidea lagatzen dit, eta ordaintan guk hemen dena ondo mantentzera konprometitzen gara, betiere norberak erantzukizun zibileko aseguru bat izanik. Eraikineren osotasunari zerbait gertatzekotan, adibidez teilatu-hegal bat eroriko balitz, nagusiaren eran-tzukizuna izango litzateke, baina barnean gertatzen dena, gure ardura da.

#### Espazioaren erabilera utzi, hori zaintzeko ardura hartuta?

L: Bai, funtsean hori da; berak ez du inolako arazorik izan nahi, ze, ez baitu eraikinean xentimorik inbertitu behar, ezta erantzule bilakatuko ere. Dirudun adimentsua denez, saltzeko erakargarria izango den eskaintzaren zain dago.

#### Baina berak ez luke ezetzik esango, adibidez, zuek eraikina konponduko bazenute, ezta?

L: Ez, bera oso kontziente da eraikineren egoeraz. Hemen garrantzitsua lurzorua da, eta ez eraikina. Kontratuaren baldintza batean dio berak erosle bat topatuko balu, etxea segituan utzi beharko genukeela. Iñaki Carroren esanetan, formula hau ez da sekula santan okupazio arazo bat konpontzeko erabili. Ez dago jurisprudentziarik.

